

Egunkaria " 5-5-96

# agenda

VAT VAT VAT VAT VAT VAT VAT VAT

• 11 . t . Z . e . l . r . k . i .

**Filtxa** Izenburua Tengamos el sexo en paz. Egileak Franca Rame, Dario Fo, Jacopo Fo. Zuzendaria Jose Carlos Plaza. Argitzaketa eta eszenazioak Francisco Leal Antzezlea Charo Lopez Non Bilboko Amrika Antzokian. Noiz Malitzaren 1etik Sera arte.



Charo Lopez, Tengamos el sexo en paz obra antzezlea. (Ander Gillenea)

## Sexu hotza

BETI da erakargarria Dario Fo-ren antzezlan bat, eta gaurkoa: *Tengamos el sexo en paz* (Bakean izan dezagun sexual) izenekoan denez, ziur nago zerbait interesgarri ikusiko dudala, nork antzetzuko duen edo zer modutan taularatuko duten albo batean utzita. Egitain, Dario Foren lanetan, bere izenaz aparte, urteetako bere adiskide sentimental eta artistikoa den Franca Rame-rena agertu ohi da, baina oso indartsua da ohitura, eta sarriagi ahazten gara tandem honen izen femininoaz. Kasu horietan, gainera, Franca da testua sinatzen duen lehena, eta geroago, Darloren izenaz gain, Jacopo bien semearena ikusten dugu, an-

tzezlana beronen liburu, batean oinarrizten baita, *Lo zen o l'arte di scopare* (Zen-a edo larrua jotszeko artea) izenburukoa alegia.

Antzezlanak, bakarrizketa eran, hitzaldi baten egitura hartu du, non protagonista —Charo Lopez— sexuaz minitzatzen den, ikuspegii femenino batetik gehienbat, eglilearen bizipen personalak tartekatzut hainbat pasadizo eta komentariorekin batera, beti ere satira politiko eta sozialaren maisu hauen estilo ezagunari jarraituz. Baina bertan datza, hain zuzen ere, muntaia honen akats bletariko bat: Fo/Rame bikotearen testuen bekatu nagusia gehiegizko didak-

tismoa da, euren eszena bakoitzetik leizio bat ateratzen da, leizio erradikala eta karrruskagarria hori bail, baina leizio bat azken finean. Eta, egia esan, hainbeste leziorekin, nekatu egiten gara azkenean. Baina, tiral Umore burutsuak eta egoeren zein pertsonaien planteamendu esperpentikoak kontentsatzen gaituzte ezagunak diren gauzak ikasteko nekeaz. Oraingo honetan, ordea, didaktismoaren zama izugarria da eta behin baino gehiagotan pentsatzen dugu, antzoki batean baino gehiago, ikasgela batean gaudela anatomia edo fisiologiari buruzko azalpen akademikoak entzuten.

Charo Lopez-en rola, hitzaldiko protagonista bakarra izanik, funtsekoa da ikusgelean egoteko sentazio hori gauzatzeko. Bere jantziak, bere ileak, bere presentziak, denak gogorarazten digu Institutuko etika irakaslea. Baina gugandik hain urrun dagoen irakasle hori modernoa sentitu da gaur eta sexuaz izango da bere gaurko ikastordua. Zenbait zifra eta datu interesgarriak dira: baina behartua da bere jarrera, esaten ari dena ikasi egin du, ez du inolaz ere bizi izan: Pitagorin eta guzti konturatzan da horretaz, nahiz eta gelako ikasle kuttuna izan, lausengari zital hori! Konturatu ez den bakkerra Jose Carlos Plaza ei da, muntaiako zuzendaria izan arren. Charoren lana limatu, arradatu egin beharko zukeen, pertsonaiak gaur ez dauzkan indarraz eta sinesgarritasunaz hornitzeko. Dena dela, *Tengamos el sexo en paz* lan entretenigarria eta arina da zalantza barik, eta gainera sexuaz hitz egitea lortzen du merkea edo ez-duina izan gabe. Baina argi dago ez dueila lortzen entusiasmorik piztea, eta oso emaitza pobre da honako hau, kontuan hartzen badugu hain gai erakargarria dela alde batetik, eta bestetik Franca Ramek eta Dario Fok sinatutako obra bat esku artean izan duela.

Agus Perez